

Euskal Herriko Gizarteratze eta Biktimologia IRESGI. Irabazteko azmorik gabeko elkarte bat da non bertako profesionalak interbentzio soziokulturalak, lana eta korola garatzen dute 1992az geroztik martuteneko espetxean.

IRESGI talde multidisziplinari batez eratua dago hezitzaile sozial, pedagogo, gizarte laguntzaile eta monitore espezializatuez konposatua, non bertan borondatezko pertsonak eta praktiketako ikasleek parte hartzen dute.

IRESGIren egitasmoa Interbentzio soziokultural. Lana eta Kirolak (donostiako) Martueneko espetxean garatzen datza eta 400 presorekin kontatzen du: emakumeen saila, Modulo orokorra, Eriizaindegia eta Sail Irekian banatuta. Hasiera batean esptxe honetan dauden presoek erdia hartzeko diseinatu zen. Orokorrean bertako infrastrukturak nahiko eskaxak dira eta ekipamenduak oso urriak presoek kopurua kontuan hartuz.

Preso eta funtzionarioen neurritz gabeko mobilitate honen ondorioz, parteartze egonkor eta koordinatua onaren faltak ageri dira. Espetxeko biztaleriaren gehiengoak drogakin arazoak dituzte, soziokultural maila baxua eta buruko eta emozio arazo larriak, gaitz bakotz gero eta larriagoak izanik. Lan ezigarri eta bergizarteratzeak espetxeko beaketa eta tratamenduarengatik koordinatua eta gainberatua dago.

IRESGI ELKARTEAREN ADIERAZPENA HIZKUNTZA-POLITIKARI ETA KOMUNIKAZIOARI BURUZ

Hizkuntzen elkarbizitza, gizarte-kohesiorako ezinbesteko elementua izanik, gizarte-elkarbizitzarako osagai bihurtu nahi dugu. Hizkuntza-berdintasuna eta norbanakoaren hizkuntza-aukera herritarren aukera-berdintasunaren oinarrian kokatu nahi ditugu. Erabilerari dagokionez, euskara eta gaztelaniak lege-onarpena duten arren, gizarte-egoera ezberdinetan bizi dira. Horregatik, aurrera egiten jarraitu nahi dugu. Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza ofizial ditugu. Hala ere, hizkuntzen arteko gizarte-berdintasuna lortzeak helburu izaten jarraitzen du. Hizkuntza-aniztasunagatik arrotz gaude, baita euskararekin munduan hizkuntza-aniztasunari egiten diogun ekarpenagatik ere: hizkuntza-aniztasunak gizarteak aberasten baitu; euskarak hizkuntza-aniztasuna aberasten duelako; eta, ondorioz, norbanakoa aberasten duelako. Euskara hizkuntza erabilia eta bizia izatea nahi dugu. Horixe da gure helburua eta gure konpromisoa: Guztion borondatea eta esfortzua eskatzen duen helburu eta

Nortzuk garen

Iresgi-k idatzia

Astelehena, 2012(e)ko ekaina(r)en 04-(e)an 14:30etan - Azken eguneratzea Astelehena, 2019(e)ko uztaila(r)en 01-(e)an 11:18etan

konpromiso bat; helburu ilusionagarri bat; guztioi dei egiten gaituena. Horregatik, IRESGIK,-GIZARTERATZE ETA BIKTIMENGANAKO ZERBITZUAREN EUSKAL INSTITUTUAK hizkuntza-politikak ezarri eta garatzerakoan duen konpromisoa aitortzen du irabazi asmorik gabeko elkarte honen jarduerak egiten diren eremuetan, honakoak izanik eremuok: langileak hautatzea, prestakuntza, barne eta kanpoko harremanak, arreta, balorazio eta sarbidea, elkartearen politika, misio, eta ikuspegia, nahiz jardueren garapena. Barne- nahiz kanpo-komunikazioari dagokionez, hartzen diren erabaki guztien berri emango da eta hizkuntza-politikaren printzipio honekin bat datorren enpresa-irudia proiektatuko da. Errazte eta potentziazeko neurriak sustatuz gauzatu ahal izango dira adierazitako printzipioak; Euskara Plan bat ezarrita, egungo egoerarekin alderaturik hobekuntzak ekarriko dituen, dagokion jarraipen sistema aplikatuz, helburu orokorraren lorpenean aurrera egiteko helburuarekin.

 Eman hegoak
euskarari



IRESGI-KO ZUZENDARITZA/ ZUZENDARITZA-BATZORDEAREN KONPROMISOAREN BERMEA


GIZARTERATZE ETA BIKTIMENGANAKO ZERBITZUAREN EUSKAL INSTITUTUAK emakume eta gizonen arteko tratu berdintasuna eta aukera-berdintasuna barne hartzen duten politikak ezarri eta garatzerakoan hartu duen konpromisoa nahiz neurriak bultzatu eta sustatzeko konpromisoa aitortzen du; zeharka edo zuzenean arraza edo sexuagatik inor baztertu gabe, gure elkartearen benetako berdintasuna lortzeko, emakumeen eta gizonen artean aukera berdintasuna ezarriz gure Politika Korporatibo eta Giza Baliabideen printzipio estrategiko gisa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007

Nortzuk garen

Iresgi-k idatzia

Astelehena, 2012(e)ko ekaina(r)en 04-(e)an 14:30etan - Azken eguneratzea Astelehena, 2019(e)ko uztaila(r)en 01-(e)an 11:18etan

lege organikoak ezartzen duen printzipioaren definizioaren arabera. Irabazi asmorik gabeko elkarte honek garatzen dituen ekintzetako esparru bakoitza (hautaketa eta sustapena, soldata-politikatik, irakaskuntzatik, lan baldintzetatik eta enplegutik, lan osasuna, laneko ordutegia eta kontziliaziotikigaroz), emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuneko printzipioa babesten dugu, eta sexuan oinarritutako zeharkako bereizkeriari arreta berezia jartzen diogu. Zeharkako bereizkeriatzat hartuko da "itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo eginera batek sexu jakin bateko pertsonentzat desabantaila jakin bat ekartzea beste sexuko pertsoneri begira". Kanpo- nahiz barne-komunikazioari dagokionez, hartzen diren erabaki guztien berri emango da eta emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunean oinarritutako printzipioarekin bat datorren irudia proiektatuko da. Iragarritako printzipioak berdintasunerako neurriak sustatuz edo egungo egoera hobetuko duen berdintasunerako plan bat ezarriz jarriko dira praktikan. Horretarako, beharrezko jarraipen- sistemak hartuko dira, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala lortzeko prozesuan aurrera egiteko, bai enpresan eta baita, ondorioz, gizartearen osotasunean ere. Helburu hori egikaritu dadin, langileen ordezkaritza izango dugu, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ezartzen duenari, nahiz aipatutako berdintasunerako neurri edo berdintasunerako Planaren garapen prozesu eta bilakaerari jarraiki.



**EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ**

**NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES**

POLITIKA

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak dioenez, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea ezinbesteko elementua da esku hartze sozialean eta helburua norbanakoan ahalik eta autonomia gehien lortzea, bizi baldintzak hobetzea, bere garapeneko testuinguru ezberdinetara egokitu, eta zailtasunak gainditzea lortzeko; horretarako, babes, prebentzio eta asistentzia funtzioa sustatuko da, izaera pertsonal eta erlazio-izaerako prestazio eta zerbitzuen bidez. Gainera, aipatutako legeak EAEn eskaintzen diren gizarte-zerbitzuetarako eskubidea aitortzen die, oro har, bizileku legezko eta benetakoa Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan duten pertsoneri: Aipaturiko guztiari gehitu behar zaio, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Zerbitzuaren helburua herri

Nortzuk garen

Iresgi-k idatzia

Astelehena, 2012(e)ko ekaina(r)en 04-(e)an 14:30etan - Azken eguneratzea Astelehena, 2019(e)ko uztaila(r)en 01-(e)an 11:18etan

osoaren gizarte ongizatea sustatzea dela. Horretarako, honako helburu hauek ezinbestekoak dira:

- Autonomia pertsonala sustatzea eta menpekotasunetik sortutako behar pertsonalak eta familiarrak aurreikusi eta artatzea.
- Babesik gabe egoteak sorturiko beharrak aintzat hartu eta artatzea.
- Bazterketa egoerak aurreikusi eta artatzea eta pertsonak, familiak eta taldeak gizarteratzea sustatzea.
- Larrialdi egoerak sorturiko behar pertsonalak eta familiarrak aurreikusi eta artatzea.

Horretarako, gizarte esku-hartzeetarako prestazio teknikoak lan-talde profesionalek diseinatuko dituzte, eta helburu bat edo batzuk lortzera bideraturik egongo dira. Horien artean, ondorengo gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeak eta esku-hartze psikosoziala topatu ahalko ditugu, besteak beste: okupazionala, hezkuntzako, psikosoziala, estimulazailea- errehabilitazailea eta gizarte akonpainamendukoa. Bestetik, Konstituzioaren 25.2. artikulua jasotzen duenez "askatasun baztertzeko zigorrek eta seguritate neurriek birheziketa eta gizartean bersartzera joko dute eta ez dira izango lan bortxatuak...". "Kultura sarbidera eta bere nortasun osoko hazkunderako eskubidea" izango dutela ere gaineratzen du. "Birheziketa eta gizartean bersartze" adierazpena erabiltzeak askatasuna mugatzen duten zigorrak norbanakoa positiboki motibatuz gauzatu beharra dakarrela uste dugu, arauak diotena betez bizi ahal izateko, kartzelak ez du presoaren pertsonalitatea garatzeko prozesua eten behar, eta kartzelaratzeko dituen ondorio kaltegarriak zuzendu behar ditu; horretarako, norbanakoaren eta komunitatearen arteko harremanak erraztu, eta kartzelaratuaren pertsonalitatea eta zigorrak eragiten ez dien legezko eskubide eta interesak errespetatu beharko ditu, arraza, sexu, erlijio, iritzi, nazionalitate edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozial dela-etainolako bazterketarik gailendu ez dadin. Tratamenduan mesedegarriak izan daitezkeen ekintzen artean nabarmentzekoak dira, besteak beste: kultur ekintzak, aisialdiko ekintzak, kirol ekintzak, kanpoaldera irteerak eta elkarrekikotasun jokoerak, preso dauden pertsonen eskubideak dituztela eta gizarte honen partaide direla onartuz. Ondorioz, espetxeko bizitzak askatasuneko bizitzaren erreferente izan beharko du. Horrela, kartzelaratzeko ondorio kaltegarri guztiak murriztu, lotura sozialak bultzatu, elkarrekikotasun errekursoez baliatu eta erakunde pribatu eta publikoen kolaborazioa eta partaidetza edukiko da, hiritarren eta erakundearen partaidetzaren laguntzaz birgizarteratzerako ekintzetan ezinbesteko instrumentua izanik; guzti hori Tratamenduko Juntak koordinaturik. **Gizon emakumeak gizaki sozialak** direla kontsideratzen dugu IRESGI-n; horregatik, Gizarte Hezkuntzak duen helburua pertsona edo kolektibo bat gizartean integratzeko prestatzea da, horretarako beharrezkoak dituzten baliabideak eskuratzeko aukera emanez. Gizartean integraturik dagoen gizakia norberaren eboluzioan, nahiz parte den kolektiboaren eboluzioan parte hartu eta bilakaeraz arduratzen dena da. Horregatik, programa honen helburua pertsona hauek beharrezkoak izango dituzten aukerak eta baliabideak eskaintzea da, euren egoeraz kontziente izateko, eta euren egoera pertsonala eta soziala hobetzeko lan bat planteatu dezaten. Hau da, programa honen funtsa birsozializazioa, birgizarteratzea eta errehabilitazio soziala dira, delitua egitera bideratu zuten egoeratik atera eta askatasuneranzko baldintza pertsonalak eta giza-baldintzak hobetuz.

Nortzuk garen

Iresgi-k idatzia

Astelehena, 2012(e)ko ekaina(r)en 04-(e)an 14:30etan - Azken eguneratzea Astelehena, 2019(e)ko uztaila(r)en 01-(e)an 11:18etan

Kartzelaratzeak dakartzan zenbait ondorio

(ezohiko ingurune batera egokitzea, norberak duen bizitzaren kontrola ez izatea, etengabeko antsietatea, etorkizunari begira itxaropenik ez izatea, ardura falta, zenbait pertsonetikiko loturak galtzea, afektiboki asaldatzea, babesik ez izatearen sentsazioa, afektibitatearen eskaera handia izatea, hizkuntzarekiko arazoak izatea, besteak beste) kontuan izanik, defendatzen duguna zera da: espetxe bateko edozein esku-hartze programak laguntzea izan behar du helburu, aipatutakoak gainditzeko, euren jatorriarekin erlazioa ez galtzeko eta kanpoko munduarekiko isolamenduak ekar ditzazkeen arriskuak ekiditeko. Horretarako, gaitasun terapeutikoak eta errehabilitaziokoak baliatu ahalko dira. Martuteneko espetxean burutzen ditugun ekintzen bitartez, gure helburua askatasunik ez duten pertsonak

birgizarteratzea

da; horretarako,

pertsonen portaerazko jarraibideetan eta arazoei aurre egiten laguntzen diegu eta komunitatearen baliabideak mobilizatu eta gizartea sentsibilizatzen dugu.

Proposaturiko ekintzak

hezkuntza egonkorrean

oinarritzen den hezkuntza-politikan txertatzen dira; non auto-ikaskuntzan oinarritu eta pertsonaren hezkuntza eta formazio globala eta integrala potentziatzen den, generoaren ikuspegia erabiliz. Hala, euskararen erabilera eta inguruko kultura sustatzen dira, prestakuntza soziokulturalean eraginez, jarrerak, baloreak eta portaerak aldatu edota aberasteko proposak diren teknikak eta metodoak erabiliz. IRESGI kontuan hartzen dugu askatasuna mugatzen zaien pertsonak gure gizartearen parte direla eta pertsona horien ehuneko handi batek eta beren familiak bazterketa, dependentzia eta babesgabetasun egoera bizi dutela; horrek, gainera, bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuko erabiltzaile potentzial bihurtzen dituzte, kartzelan sartu aurretik, ondoren, nahiz kartzelako egonaldian zehar.

Horregatik, kartzelarteko eskuhartze programak beharrezkoak dira eta esku-hartzea osatzen dute, inserzioa ahalbidetu eta etorkizunean delituzko jarrerak ekiditeko. Horrenbestez, kartzelan sartzeko unean eta kartzelako egonaldian aintzat hartu eta egikaritu behar dira, norbanakoan oinarrituz eta birsozializatzeko prozesuko continuum bat balira bezala ikusiz. Horretarako, gainera, ezinbestekoa da kartzelatik kanpoko esku-hartze arduratzen diren erakunde eta elkarteekin (aurretik aipatutako egoerei aurre egiteko baliabideak ahalbidetzen dituztenekin) sarean lan egitea. Horiek guztiak esanda, uste dugu eskumena duten erakunde eta elkarte guztiak askatasuna mugatzen zaien pertsonentzat baliabide proposak ezarri behar dituztela, askatasuna mugatzen zaien pertsonak bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuetan barne hartzeko, bigarren mailako arretan definitu eta gainerako bigarren mailako sarean barneraturiko esku-hartze okupazional, hezkuntzazko, psikosozial, estimulatzailerrehabilitatzaile edo gizarte akonpainamenduan partaide izateko, zeinak gizartean barneratzeko beharrak kontuan hartzen dituen eta horiekin batera, kolektibo honekin esku hartzeak egiten dituzten programa guztietan barneraturikoak.

MISIOA

- Laguntza integral eta diziplina anitzeko programak bultzatu eta egitea, non bazterketa soziala jasateko arriskuan daudenak, jokaera antisozialak, delituzko edo/eta askatasunik gabe daudenen eskubideak zaindu eta sustatuko dituzten, honako esparruetan: hezkuntzan,

Nortzuk garen

Iresgi-k idatzia

Astelehena, 2012(e)ko ekaina(r)en 04-(e)an 14:30etan - Azken eguneratzea Astelehena, 2019(e)ko uztaila(r)en 01-(e)an 11:18etan

kulturan, garapen pertsonal integralean, zerbitzu sozialetarako sarbidean eta gizarteratze eta birgizarteratze eraginkor baterako beharrezkoak diren erremintak bermatzeko garaian. Guzti hori generoaren ikuspegia kontuan izanik

- Gizartea sentsibilizatzea bazterketa soziala jasateko arriskua duten pertsonen egoera eta beharrak zein diren azalduta, helburua beraien birgizarteratzea izanik.

- Euskal kultura ezagutzera eman eta euskararen erabilera potentziatuz, askatasunik ez duten pertsonak gizarteratzearen duten isolamendua apurtzean kolaboratzea

- Zenbait instituzio publiko edo pribaturekin programa edo/eta ekintzak garatu edota egikaritzean kolaboratzea: IRESGI elkarteak dituen helburuekin bat datozen ekintzak izango dira eta generoaren ikuspegia kontuan hartuko da

IKUSPUNTUA

- Zigor arazoak edota espetxe-arazoak dituzten pertsonak gizarteratzean eta laneratzean **erreferente**

izan nahi duguetan gure lana eraginkortasunez, erantzukizunez eta pertsonakiko hurbiltasunez garatuz.

- Kartzelako munduaren eta gizarteratzearen arteko **zubi bat** izan nahi dugu, gizarteratze eraginkor baten alde egiteko.

- Berdintasun eta genero ikuspegiaren alorrean nahiz konfidentzialtasun eta datuen babes eta hizkuntza-politikan, **gure lanagatik aintzatetsi gaitzaten** nahi dugu.

BALOREAK

- Elkartasuna
- Berdintasuna
- Datuen konfidentzialtasuna eta babesa
- Eleaniztasuna sustatzea.
- Aukera-berdintasuna
- Pertsonarekiko errespetua
- Zintzotasun eta konpromisoa
- Arreta osoa
- Gardentasuna
- Konpetentzia profesionala eta eraginkorra
- Irabazi asmorik gabe
- Beste erakunde eta mugimenduekin sareko lana sustatzea
- Gure lanaren kalitatearen erantzule
- Ekologia eta ingurumenarekiko errespetutsua